


BAPOREA



BILDUMA

# Ibilgailu txikiak


Graham Greene

Marrazkigilea: Tony Ross

ikasmina

*Zapalgailu txikia*





EGUNEN batean Londresko aireportuan lurre-ratzeko zorian bazaudete oraingo errektore handi horietako batean, horixe da zerutik lurrera begiratzen duzuenen ikusiko duzuen. Lerro zuri luzeak benetan pistak dira, hegazkinak lurre-ratzeko eta aineratzeko pistak. Eta ziur eskuineko txokoan, euria egin, elurra egin edo egun eguzkitsua izan, puntutxo ilun bat ikusiko duzuela. Ipuin honetako heroia da. Orriak igarotzean gertutik ikusi ahal izango duzue.

Londresko aireportuan, denek «zapalgailu txikia» esaten diote. Hura gidatzen duen gizonak Bill du izena. Batzuetan, sarrera zaintzen duen poliziak adarra jotzen dio:

–Hori da auto bikaina daukazuna! –esaten dio–. Zer da? Rolls-Royce bat?

–Patatekin jan ditzakezu zure Rolls-Royce guztiak –erantzuten dio Billek halakoetan–, eta zure Jumboak eta Airebusak. Jakin al daiteke non zeundeten polizia guztiak, zapalgailu txiak Eskubeltz taldea harrapatu zuenean?

Eskubeltz taldea kontrabandista talde bat zen. Esku beltz bat erabiltzen zuten, hain zuzen, ikur sekretu moduan.


Esan beharra dago Londresera hegazkinez etortzen diren guztiak maleta ireki behar izaten dutela, eta aduanazainei erakutsi behar dietela ez daramatela urrerik edo diamanterik, edo atzerrian erosi ahal izandako balio handiko ezer. Postetxe-ko seilu batzuk ere oso baliotsuak izan daitezke.



Baina kontrabandistek ezkutuko sakelak eramaten dituzte arropetan josita, eta batzuetan banku-billeteak liburu baten orri artean, edo hondo bikoitzeko maletak dauzkate, eta haiek irekiz gero ager daiteke...

–Baina, zer demontre da hau...? –galdetzen dute halakoetan aduanazainek.

Eskubeltz taldeko kontrabandistak denetan gaiztoenak eta azkarrenak ziren. Elkarri esku-titzak idazten zizkiotenean, kode sekretuak era-biltzen zituzten; honako mezu hau idazteko, adi-bidez. Deszifratzeko gauza zarete?





Hauxe esan nahi du: «Dirua itsasontzian dago. Hilaren 8an, asteartea, helduko da».

Eskutitz hori adibide bat baino ez da, gaizkile haiek nolako trikimailuak erabiltzen zituzten ikus dezazuen, baina ez da istorio honetakoa, beste batekoa baizik. Gure istorioa... Gabonetan hasi zen, urte bateko Gabon hotzetan. Zapalgailu txikia gogotik ari zen lanean, aireportuko errepedea egoera onean egon zedin. Irrikaz zegoen Eguberri-eguna behingoz heltzeko. Gaixoak Eguberrietan, Pazko-astean, maiatzaren lehenean eta abuztuaren 15ean baino ez zeukan oporrik.

Eta gainera, abuztuaren 15ean, Londresen euria egiten du beti.

Une hartan, ametsetan ikusten ari zen gorostia, mihura, pinua... eta Billek oparitarako pape-rean bilduko zizkion ikatz-puskak ere ikusten zituen. Zeinen ondo egongo zen etxean, egun osoan kea botatzen, errepede izoztuetan lan egin beharrik gabe!

Zapalgailu txikiak ez zekien ezer Eskubeltz taldeaz. Buruan Gabonak besterik ez zuen, eta inondik inora ez zuen pentsatuko, handik milaka kilometrora, Afrikako eguzki berotan, King eta

Scott plan beldurgarri bat antolatzen ari zirela.

-Taldea ohartarazi duzu?

-Gaueko hegazkinean joan behar duzu. Egu-berri-egunerako etxean egongo zara. Dena kon-ponduta dago.

